

MUNHOA IKASTOLAKO ALDIZKARIA

Munhoa ikastolako haurrek egina

Munhoa ikastolako lehen aldizkaria :

- Ikastolako sartzera eta aurkezpena
- Udazkena: mahats biltze eta xorien migrazioa
- Animaleak
- Ikastolako 10 urteak

Eguzki sistema

Eguzkia izar bat da. Eguzkiaren inguruan planetak badira. 9 planeta dira. Hauek dira: Merkurio, Artizarra, Lurra, Marte, Jupiter Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton.

Eguzkiaren tenperatura 5500°koa da.

Zoe



Ikastolako 10 urteak

Ikastola 2015ean sortu zelarik, Maider Aguerre zen lehen erakaslea, Aña Lapeguek lagundurik. 13 ikasle baziren ikastola sortu zelarik: Irei, Martta, Peio, Idoia, Aña, Kamila, Amaia, Irati, Jon, Imanol, Laida, Elaia eta Ally.

Urteak pasa ziren eta ikastolak 10 urte egin dituelarik animaleko besta bat egin genuen irailaren 5ean. Goizean ibilaldi ebat ta bizikletako kurtsa bat antolatuak ziren. Ostatua bazen, haurrentzat tripa lerratze bat ezarri zuten eta makiatzeko leku bat. Friten eta janariaren manatzeko, tiketa bat hartu behar zen. Sukaldean ziren heldu batzuei emanaz gero, fritak ukaiten ziren.

Uxue

Ikastolaren aurkezpena

Gure ikastolan 29 ikasle gira, bi laguntzaile eta hiru erakasle. Horrez gain, Karol eta Xan ikastolara jiten dira. Xanek bertsolaritza erakasten du eta Karolek Bizijolas.

Ama ikastolan hamabi ikasle dira eta hamazazpi lehen mailan.

Ikastolako sartzean forman jin ginen bakantzetatik eta untsa pasatu genuen. Aloñak frantsesa erakasten du eta Amaiak euskara.

Xanekin bertsoak ikasten ditugu bertsolari ttipira joateko eta Karolekin jokoak asmatzen eta bozkatzen ditugu Bizijolas topaketetara eramateko.

Jokin, Naia, Maiena



Zikoina

Zikoinek horien gorputzeko parte gehiena luma xuriz betea dute. Europan, bi zikoina espezie badira: zikoina beltza eta zikoina xuria. Zikoinek mi-gratzen dute. Erruleak dira.

Zikoina beltzak 90 eta 105 zentimetro artean neurtzen du eta zikoina xuriak 95 eta 110 zentimetro artean. Zikoina xuriak mokoaren puntta beltza du baina beste parte guztia iranja du.

Amaiur

Gazteluak

Zergatik egiten ziren gazteluak ?

Gazteluak Erdi Aroan eraikitzen zituzten haien lurrak eta burua babesteko baita inguru-lurrak zaintzeko.

Zergatik gazteluak haundiak dira ?

Ziloetarik tiroak botatzen zituzten eta tiroetaz babesteko lehio ttipiak zituzten. Gazteluetan familiek ber ohean lo egiten zuten. Duela urteak zubien egiten hasi ziren. Erregearen familiakoak dorrean bizi ziren.

Ihitz

Mahats biltzea

Azkarateko mahats biltzeak irailaren bukaeran hasi ziren eta urriaren hastapenean bukatu ziren gutti gora behera.

Azkaraten denek eskuz biltzen dugu mahatsa.

Frantzian batzuek makina batekin biltzen dute mahatsa eta bizpahiru pertsona behar dituzte mahatsa biltzeko ; guk Azkaraten, hogoi bat pertsona behar ditugularik.

Irailaren 30ean Munhoa ikastolarekin Miren eta Joanen mahastietara joan ginen mahats biltzera. Ikastolara itzultzerakoan, mahatsa bildu zituztenak baskaltzen ikusi genituen.

Azkaraten, hona nor diren mahatszainak : Elurti, Bidartea eta Apelxenia dira besteak beste.

Ioritz

Zergatik sugeek haien azala galtzen dute ?

Sugeak beti haunditzen dira. Orduan haien azalaren barnean ttinke senditzen direlarik, gordelekuan kiribiltzen dira. Azala berri bat jin delarik azala zaharra uzten du eta haien bi-dea segitzen dute.

Lore

Behia

Egunero esne garraiorako kamiona baserrira heldu da behi esne freskoaren biltzera. Gero, esnetegi batera eramaten du esnea. Bertan, esnea botiletan sartzen dute, dendetan saltzeko. Supermerkatuan esnekien apaletan aurkitzen da esnea.

Ahatse ttipia sortzen delarik, behiak esnea egin behar du bere ttipiari emateko. Baserri-tarrak deizten badu, esnea emaiten segituko du.

Esnearekin burra, iaurta eta gasna egiten da. Esnea ere edan dezakegu.

Ainhua

Ardia

Neguan artilea hazten zaio bero mantentzeko.

Udaberrian, artilea mozten zaio ardiari bero egiten baitu. Ondotik, artilea garbitu, arda-zkatu eta tindatzen dute. Artilearekin, berokiak eta trikotak egiten dituzte.

Ardi batek ihes egiten badu, beste guziek segituko dute. Haien ilea goxoa da.

Ardiek belarra jaten dute. Esnea egiten dute axuria ukaiten dutelarik. Esnea ukaiteko, artzainak ardia deizten du. Esnearekin, gasna, iaurtak eta gaztanbera egiten dute.

Ezti



Xakurra

Duela 17 000 urte Ipar-hemisferioan gizakiak otsoak bereganatu zituen. Historiaurreko ehiztari horiek, otsoak etxekotu zituzten hotzetik babesteko, ihiztatzeke, harrapariak uxatzeko eta akanpalekuak zaintzeko. Gizakia ohartu zen xakurra biziki baliagarria izanen zitzaiola. Mendeetan gizakiak xakur kumeak hautatu nahasi eta hainbat arraza sortu ditu. Gaur egun xakur arraza gehienak konpainiako animale bezala ditugu. Hauek dira xakur mota batzu: Collie, Golden Retriever, Bull-terrier, Doberman...



Dioni

Xitoak nola sortzen dira?

Xitoen sortzeko oiloa eta oilarra behar dira. Oilarrak oiloaren gainean ezarri behar du eta oiloak arroltzea erruten du eta berotzen du 28 egunez.

Arroltzetik xitoa ateratzen da kuxkua xilatuz. Xitoak lumatxa horiak ditu.

Xitoaren mokoaren puntta diamantea deitzen da. Horrek laguntzen du jaten.

Sai xuria

Sai xuriak ainitz migratzen du 4000 km eginez urtean.

Migrazioa Afrika arte egiten dute. Sai xuria bikotea Munhoa mendian ikusten ahal da. Euskal Herrian lau bikote badira.

1993an, sai xuri bati eraztun bat jarri zioten Bardeetan eta 2020an berrituz harra-patu zuten eta kendu zioten eraztuna.

Lutxi eta Laida



Xanti eta loritz



Xoriek nundik nora migratzen dute?

Hegaztiak zuzen zuzen abian dira. Gehienik mendiak lakuak eta itsasoak eta beste traba batzu ikusten dituzte haien bidean, saihestu behar dituztenak. Gehien gehienek ez dute ber bidea segitzen. Multzoetan hegan egiten dute. Pinpirinak ere migratzen dute.

Neguan Afrikara migratzen dute berotsaunaren eta janariaren atzemaiteko. Neguan hemen, Euskal Herrian hotz da, udaberrian berrituz etorriko dira.

Maddi

Etxeko karraskariak



Hamzterra, sagua eta xintxilla, gauez ibiltzen dira. Goiza heltzen denean, lotara joaiten dira eta arratsaldean iratzartzean jaten dute. Karraskariak, hortz luze-luzeak dituzte: ebakortzek milimetro bat eta bi milimetro artean sortzen dira astero. Janaria karraskatzen dute ttipi-ttipiak izan arte, beheko ebakortzak goikoekin kraskatuz.

Hamzterrak, akuriak eta saguek haragia ere jaten dute.

Oro har karraskari guzien bizialdia laburra da. Sagua da bi urtez bizi da, hamzterra 3 urtez eta akuria bost urtez. Gero aldiz xintxilla hamalau urtez bizitzen da.

Uxue-Lur